Que la existencia de consignación presupuestaria suficiente, en las partidas de capítulo I que corresponden al nivel de vinculación establecido, lo será con las reservas debidas a que actualmente, el sistema informático y de contabilidad no permite el control real. Deberá someterse a condición suspensiva de existencia de crédito.

Considerando que es necesario realizar la modificación que se propone, dado que esta suficientemente acreditada la dedicación del Encargado de Obras, con prolongación de su jornada habitual, que posteriormente tiene que librar en tiempo, lo que está produciendo graves disfunciones en el funcionamiento de la Brigada Municipal, por lo que es preciso sustituir el disfrute en tiempo de las horas de exceso sobre la jornada establecida, por la Dedicación Especial en la Modalidad de Disponibilidad Absoluta que se propone.

Conforme a lo establecido en el Art. 22.2 i) de la Ley 7/85 es competente para aprobar la Relación de Puestos de Trabajo y sus modificaciones el Pleno de la Corporación.

De acuerdo con el Decreto de Alcaldía núm. 3110, de 26 de noviembre de 2007, por el que la Alcaldía efectúa delegación de firma a favor del Concejal Delegado Adjunto de Área, la Alcaldía a través del Concejal Delegado Adjunto del Área de Función Pública y Relaciones Laborales, previo dictamen de la Comisión Informativa y de

Arloko zinegotzi ordezkari laguntzaile bidez, Ogasun eta Ondare eta Ondare eta Funtzio Publiko eta lan Harreman Arloetako Informazio eta Jarraipen Batzordearen aldez aurreko irizpenaz, Alkatetzak erabaki hauxe hartzea proposatu dio Osoko Bilkurari:

LEHENA.- Martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuz onartutako Tokiko Ogasunak arautzen dituen Testu Bategineko 217.2 artikuluan xedatutakoarekin bat, gailentzea Udal Kontu Hartzailetzak 2011ko apirilaren 5ean eman zuen txostenean formulatutako eragozpenak, proposatutako aldaketa egitea ezinbestekoa dela iritzita. Izan ere, ohiko lanaldia luzatu behar duenez, gero orduak hartzen ditu eta hori gorabehera larriak sortzen ari da Udal Lan Taldearen funtzionamenduan. Hortaz, ezarritako lanalditik kanpo egiten dituen orduez gozatu beharrean, behar-beharrezkoa da Arduraldi Berezia ezartzea, Erabateko Erabilgarritasunaren Modalitatean.

BIGARRENA.- Obretako Arduradun lanpostuan (5045 kodea) Arduraldi Berezia ezartzea, Erabateko Erabilgarritasunaren modalitatean, Laudioko Udaleko Langileen Araudiko 2. eranskineko 73. artikuluan xedatutako lan-baldintzei jarraituz.

Erabilgarritasun horren ordainetan, Obretako Arduradunak soldata, lanpostu-mailako osagarria eta osagarri espezifikoa batzen lortzen den kopuruaren %10 jasoko du. Ehuneko horren zenbatekoa 3.3307,37 euro da urtean. Diru-kopuru hori 14 hileko soldata berdinetan ordainduko da, zenbat zerbitzu-egun, baja-egun eta opor-egun eduki diren gorabehera. Ehuneko hori Tarte Bereziko Berariazko Osagarriaren kontzeptu gisa jasoko da, eta Osoko Bilkurak akordio hau onartu eta hurrengo hilabeteko 1. egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Erabaki hau kreditua baldin badago soilik gauzatu ahal izango da.

Seguimiento de las Áreas de Función Pública y Relaciones Laborales y de Hacienda y Patrimonio, propone al Pleno la adopción del siguiente acuerdo:

PRIMERO.- De conformidad con lo establecido en el artículo 217.2 del Texto Refundido de la Ley Reguladora de las Haciendas Locales, aprobado por Real Decreto Legislativo 2/2004, de 5 de marzo, salvar los reparos formulados por la Intervención Municipal en su informe de fecha 5 de abril de 2011, en base a que es necesario realizar la modificación que se propone, dado que esta suficientemente acreditada la dedicación del Encargado de Obras, con prolongación de su jornada habitual, que posteriormente tiene que librar en tiempo, lo que está produciendo graves disfunciones en el funcionamiento de la Brigada Municipal, por lo que es preciso sustituir el disfrute en tiempo de las horas de exceso sobre la jornada establecida, por la Dedicación Especial en la Modalidad de Disponibilidad Absoluta que se propone.

SEGUNDO.- Establecer para el puesto código 5045 Encargado de Obras, Dedicación Especial, en la Modalidad de Disponibilidad Absoluta, del artículo 75 del Anexo 2 del Reglamento de Personal del Ayuntamiento de Laudio/Llodio, con las condiciones de desempeño que en dicho artículo se establecen.

La compensación por esta disponibilidad es del 10 % de la suma de Sueldo, Complemento de Destino y Complemento Específico, del puesto de Encargado de Obras, lo que asciende a la cantidad anual de 3.307,37 €, que se abonará distribuido en 14 mensualidades iguales, independientemente del número de días de servicio, bajas, vacaciones, etc, como Complemento Específico Tramo Dedicación Especial, con efectos desde el día 1 del mes siguiente a la aprobación por el Pleno de este acuerdo.

Este acuerdo queda sujeto a la condición suspensiva de existencia de crédito

TERCERO.- El presupuesto del coste anual que supone el establecimiento de la Dedicación Especial a este puesto de trabajo asciende a la cantidad de

HIRUGARRENA.- Lanpostu honi Arduraldi Berezia ezartzeak 3.307,37 euroko kostua izango du urtean. Berariazko Osagarriaren kontzeptu gisa ordainduko da, Udalaren aurrekontu luzatuaren 05-5110-121.02 partidaren kargura.

3.307,37 € en concepto de Complemento Específico con cargo a la partida 05-5110-121.02 del presupuesto prorrogado del Ayuntamiento.

**GAIZKA AMORRORTU BOVEDA**.- Uste dugu pertsona zehatz honek behar bada egia dela lan eskergaitz egiten duela baina uste dugu lanpostu bat, Udaletxe batean, ezin dela sailkatu pertsona zehatz batek egiten duenaren arabera.

Egia izango da baina, behar bada, hemen egin behar duguna, ez dakigulako nor etorriko den atzetik, da pertsona honen funtzioak benetan sailkatu. Badago bere arloan arduradun bat eta, agian, berari dagokio asanbladetara joatea.

Horregatik uste dugu benetan egin behar dena ondo antolatzea da, funtzioak banatu eta ez halako konponketak egin.

**GAIZKA AMORRORTU BOVEDA.-** Quizás sí que es verdad que esta persona realiza una labor ingrata, pero creemos que un puesto de trabajo de un ayuntamiento no se puede clasificar teniendo en cuenta el trabajo de una persona en particular.

Quizás lo que debamos hacer es clasificar las funciones del puesto, ya que no sabemos quien lo va a ocupar en el futuro. Su área ya cuenta con un responsable, y quizás debería ser el que acuda a las asambleas.

Por todo ello, pensamos que más que proponer estos arreglos, se debería organizar todo bien y definir adecuadamente las funciones del puesto.

**TXARO SARASUA DIAZ.-** Gai-zerrendako 5. puntua eztabaidatu dugunean aipatu dugu gure jarrera. Bestalde, esan nahi dut lanpostu hori betetzen ari den pertsona oso langile ona dela, horretan ez dut zalantzarik. Auzo-batzarretan ikusi dut; eta isilik dago, ez du ezer esaten. Hori bada politikariok udal honetako funtzionarioengandik espero dugun berehalako baliagarritasuna, gauzak berraztertu beharko genituzkeela uste dut.

Ez gaude ados proposamen honetan adierazitako arrazoiekin. Hain zuzen, esaten da aukera hori planteatzeko arrazoia dela, arduraldi hori onartuta, politikariekin bildu ahal izango dela ohiko lanalditik kanpo.

Kontua da, baina, hona ekarri dituzuen proposamenetan ez dela lanpostuen baloraziorik egin. Proposamenak egin dira, eta kito.

Ezin da esan langile bati erabilgarritasun hori

**TXARO SARASUA DÍAZ**.- Ya lo hemos argumentado en el punto 5 del orden del día. También diré que la persona que en este momento ocupa este puesto es un buen trabajador, no lo pongo en duda. Yo le he visto en las Asambleas de Barrio, sin hablar  ni decir nada. Si esa es la disponibilidad inmediata que queremos los políticos de los funcionarios de este Ayuntamiento entiendo que alguna cosa debemos de reconsiderar.

Con las razones que se esgrimen en esta propuesta no estamos de acuerdo, porque se dice que se plantea esta disponibilidad porque así puede acudir a las reuniones con los políticos fuera de su horario laboral habitual.

En todas las propuestas que se han traído no hay valoración de los puestos, se hace y punto.

Decir que a un trabajador se le plantea esta disponibilidad porque no da abasto y hay que tenerlo fuera del horario. Creo que lo que

ezartzen zaiola lanez gainezka dagoelako eta lan-ordutegitik kanpo jardun behar duelako. Nire ustez, egin behar dena zera da, lana berrantolatzea, batzuek asko lan egiten dutelako eta beste batzuek gutxi.

Guk ez dugu honelako neurririk babestuko, ez, behintzat, plantilla berrantolatzen ez den bitartean.

**CARLOS URQUIJO VALDIVIELSO.-** Guk, aurreko astelehenean, Osokorako Gaietako Informazio Batzordean, abstenitu ginen, baina oraingoan aldaketa honen alde bozkatuko dugu. Osagarri hori planteatzea elementu diskrezionala denez, gustatuko litzaidake norbaitek azaltzea zergatik igo zaion soldata. Horrela, jendeak ez luke pentsatuko soldata igo zaiola bakar-bakarrik Gobernu Taldeak uste duelako jatorra dela. Esan duzue auzo-batzarretan parte hartzen duela, baina horrelako bat edo bi baino ez dira antolatzen urtean. Ez dut uste hori izan denik soldata igotzeko arrazoia.

Gustatuko litzaidake alkateak edo arloko zinegotziak azaltzea zein den bere erabilgarritasuna eta zein lan egiten duen lan-ordutegitik kanpo, eta horrek zer onura ekartzen dizkion udalerriari.

Bestalde, ez zait gustatzen langileen izenak aipatzea, ez kritikatzeko ez eta onuradun direla esateko ere.

**JON KARLA MENOIO LLANO.-** Arrazoiak proposamenean bertan azaldu dira. Are gehiago, nik uste izendapen hau berandu datorrela.

Nik erantzukizun guztia hartzen dut neure gain. Alkate gisa, ongi zein gaizki egiten diren gauza guztien azken erantzulea naiz.

Pertsona horrek erantzukizun handiko lana egiten du, modu positiboan. Soldataren bidez orain aitortuko diogun erabilgarritasuna aspalditik ari da eskaintzen.

tenemos que hacer es reorganizar, porque alguien trabaja mucho y otros poco.

Nosotros no vamos a compartir una medida de estas mientras no se haga una reorganización de la plantilla.

**CARLOS URQUIJO VALDIVIELSO**.- Nosotros, en la Comisión Informativa de Asuntos de Pleno del pasado lunes, nos abstuvimos en esta modificación, pero vamos a votar a favor. La verdad es que me gustaría que, como es un elemento discrecional el planteara este complemento, que se dé una explicación de porqué se da este aumento de sueldo, por lo menos para que no de la impresión de que se le sube el sueldo porque le cae simpática al Equipo de Gobierno. Se dice que acude a las Asambleas de Barrio que son una o dos al año. No creo que la subida de sueldo se deba a esto.

Me gustaría que el Alcalde, o Concejal del Área, explicaran cuál es la disponibilidad y el trabajo que desarrolla fuera de su trabajo y de qué manera beneficia al municipio.

Tampoco me gusta que se den aquí los nombres de los trabajadores, ni para criticar ni para mencionar si son beneficiados.

**JON KARLA MENOIO LLANO**.- Las razones ya están expuestas en la propuesta. Yo creo que incluso este reconocimiento le llega tarde.

Yo asumo toda la responsabilidad porque, como Alcalde, soy el máximo responsable de lo que se hace bien y de lo que se hace mal.

Es una persona que hace un trabajo muy responsable y positivo y ahora, en esta disponibilidad que se le reconoce a nivel retributivo ya la viene prestando.

Me consta que tiene el teléfono abierto hasta las 22 horas porque yo le he llamado varias veces

Jakin badakit telefonoa piztuta duela gaueko hamarrak arte. Nik hainbatetan deitu diot hainbat larrialditan esku hartzeko. Telefonoa hartu du, eta oso jarrera positiboa izan du beti.

Proposamen hau egiteko kontuan hartu den erreferentzia ez da izan inolaz ere auzo-batzarretako parte-hartzea. Obra eta Zerbitzuetako arlo-buruak ere batzar horietan parte hartzen du. Azkenaldian, bada, hizpide dugun langileak ere parte hartu izan du, eta zerbait esan behar duenean, galderaren bat egiten diotenean, esan egiten du.

Halaber, uste dut, batzarretan duen parte-hartzea oso erabilgarria dela, bertan plazaratzen diren eskaera asko hobekien identifika ditzakeen pertsona delako.

Korporazioak ez daki beti auzokide bat non bizi den. Hark, ordea, zehatz-mehatz ezagutzen du udalerria, eta horregatik eskaera horiei erantzuteko pertsonarik onena da.

Horiek guztiak horrela, beraz, ezin egokiagoa da tresna hau baliatzea. Lanpostuak balioztatzeko tresna, ordea, erabiltzeke dago oraindik.

Erabateko erabilgarritasuna Udal-hitzek xedatutako tresna da. Udal honetan bizitzen ari garen egoera bati erantzuteko bide ematen du, eta udal-langile batek profesionaltasun handiz egiten duen lana aitortzeko modua da.

**TXARO SARASUA DIAZ.-** Udal honetako langile askok dute profesionaltasun handia, eta langile finak dira.

Bere lana aitortu nahi zaion pertsona hori oso langilea dela diozu, eta ni ados nago horrekin. Ados nago, bai, baina kontua da egiten duen lanagatik soldata jasotzen duela.

Aitortza hori modu horretan egin nahi da, plantilla berrantolatzeko asmorik ez dagoelako. Lanaz gain, fideltasuna ere saritzen ez ote den, hori da ez dakidana. Hala al da?

para atender diferentes cuestiones de urgencia y siempre me ha cogido el teléfono y con una actitud muy positiva.

La referencia que se ha tomado para elaborar esta propuesta no es, para nada, su participación en las Asambleas de Barrio. El Jefe del Departamento de Obras y Servicios también acude a esas Asambleas. Últimamente también está acudiendo el trabajador del que estamos hablando y cuando tiene que decir algo, si se le pregunta, lo dice.

Creo, además, que su participación en las Asambleas es muy útil porque es la persona que mejor identifica muchas peticiones de las que se hacen.

La Corporación no siempre sabe dónde vive un vecino pero él conoce al dedillo el municipio y es quien mejor responde a esas peticiones.

Creemos que, por todas estas razones, es muy oportuno recurrir a esta herramienta. La herramienta de la valoración de los puestos de trabajo está ahí, pendiente.

Esta es una herramienta que nos habilita el Udalhitz para dar cobertura a una situación que estamos viviendo en este Ayuntamiento y atender a las tareas que viene desarrollando un operario municipal con muchísima profesionalidad.

**TXARO SARASUA DÍAZ**.- Mucha profesionalidad y muy bien hacer tienen muchos de los funcionarios que trabajan en este Ayuntamiento.

Comparto que la persona a la que se le quiere reconocer un mérito al trabajo es muy trabajadora. Lo comparto pero, por su trabajo le pagan.

Que se quiere hacer de esta manera porque no se quiere reorganizar la plantilla. Lo que no sé es si se premia, además del mérito al trabajo, la fidelidad. Pregunto si esto es así.

Herri honetan jende askok lan eskerga eta ona egiten du, eta hilaren amaieran soldata jasotzen dute. Nire ustez, horrela izan behar du, bai. Lana sortu nahi badugu, beste lanpostu osagarri batzuk sortu behar dira.

Ez dut esaten auzo-batzarretara soilik joaten denik. Badakit Informazio Batzordeetan ere parte hartzen duela, eta suposatzen dut deitzen diozuen guztietan eskuragarri dagoela.

Baina, berriro diot: erabateko erabilgarritasuna onartu beharrean, urtean behin udaleko funtzionarioen lana saritzeko deialdia egin beharko litzateke.

Berriro diot, urtean 3.000 euro gehiago emateaz ari gara, administrazioaren gastua arrazionalizatzeko unea den honetan, gainera. Gure aburuz, adierazitako argumentuak ez dute nahikoa baliorik alde bozkatu ahal izateko.

**GAIZKA AMORRORTU BOVEDA**.- Udaletxe honetan lanpostuen zerrenda dela eta nahiko nahastea daukagu, urteak dira.

Uste dugu hori konpontzeko, batetik lanpostuen balorazio bat egitea pendiente dagoela. Sindikatuetatik eta abarretik aspalditik eskatu zaizue eta ez da egin. Horregatik arregarria iruditzen zaigu Udaletxeko lanpostuen zerrendaren balorazio bat egiten ez denean, lanpostu zehatz baten balorazioa egitea. Gainera, zuei entzunda, ez duzue lanpostua baloratzen baizik eta pertsona baten lana.

Azkenean, lanpostuaren lana balorazio pertsonal bihurtzen da, nolabaiteko saria ematen diozue pertsona bati egindako lanagatik. Baina benetan Bilkura honetara ekartzen diguzuena da diru hori lanpostu bati ezartzen diogula ez pertsona zehatz horri. Pertsona hori jubilatzen denean ondorengo alper hutsa balitz, balorazioa pertsonala baldin bada. Uste dugu balorazioak lanpostuena izan behar dela eta ez pertsonena.

En este país muchas personas trabajan mucho y muy bien y cobran a final de mes. Entiendo que así debe de ser porque, si queremos generar empleo, tenemos que complementarlo con otros puestos de trabajo.

No digo que sólo acuda a las Asambleas de Barrio, ya sé que también acude a las Comisiones Informativas y, supongo, que si ustedes le llaman, estará a su disposición.

Pero, lo vuelvo a plantear. Quizás, en vez de aprobar una disponibilidad absoluta, se debiera convocar, una vez al año, un premio de mérito al trabajo para los funcionarios de este Ayuntamiento.

Repito, son 3.000 euros más al año, en un momento en el que se tiene que racionalizar el gasto de la administración. Los argumentos que se esgrimen, bajo nuestro punto de vista, no son suficientemente válidos como para votar a favor.

**GAIZKA AMORRORTU BOVEDA**.- En este ayuntamiento hay un lío considerable con la Relación de Puestos de Trabajo, Llevamos muchos años con este problema.

Para arreglarlo, por una parte, debe llevarse a cabo la valoración de los puestos de trabajo, que todavía está pendiente. Los sindicatos y demás agentes llevan tiempo pidiéndolo, pero todavía no se ha hecho. Por lo tanto, nos parece increíble que sin haber hecho una valoración de la Relación de Puestos de Trabajo del Ayuntamiento, se haga una valoración de un puesto en concreto, y más cuando según lo que he escuchado, no se trata de la valoración de un puesto de trabajo, sino de la valoración del trabajo que realiza una persona.

Al final, lo que debería ser la valoración del trabajo del puesto, se convierto en una valoración personal. Se premia a una persona por el trabajo que realiza, pero lo que queréis hacer ve en el Pleno que ese dinero se le concede a un puesto y no a esa persona en concreto. Cuando esa persona se jubile, si su sucesor resulta ser un vago, no sabemos qué va a pasar con esa valoración personal. Por eso, creemos que la valoración deber ser del puesto de trabajo no de la persona.

Esparru honetan balorazio eta antolakuntza gehiago behar dugula.

Además creemos que en este ámbito se necesita una valoración y una organización más profunda.

PP alderdiaren aldetik azaldu da beraien asmoa ez zela inongo momentuan pertsona zehatz honekin sartzea. Ez dutela uste pertsona horrek ezer berezirik egin duenik edo saritzen zaionik era beltz batean. Ez dutela esku beltzik ikusten atzean, eta ez dutela uste nepotismo kontu bat denik hau. Baina, aurreko puntuan alde bozkatu duzuen horretan non hartutako erabakiak Alkatea Ordearen emaztearen onurako izan den. Horretan bai uste dugula azalpenak eman beharko liratekeela.

Por parte del PP han manifestado que su intención no era meterse con en esa persona concreta. No creen que esa persona haya hecho nada en especial, ni creen que se le premie de un modo oscuro. No ven una mano negra detrás de este asunto, ni lo consideran un tema de nepotismo. De todas formas, en el punto anterior, en ese punto que habéis apoyado, la decisión que se ha tomado favorece claramente a la mujer del teniente alcalde. Creemos, que ese tema se merece una explicación.

**JON KARLA MENOIO LLANO.-** Azalpenak ematen direnean, entzun egin behar dira. Hau ez da saria, aitortza da. Ez dira gauza bera, eta horregatik esan dut. Ondo egiten ari den lanagatiko aitortza da aurkeztu duguna.

**JON KARLA MENOIO LLANO**.- Aquí las explicaciones se dan para que se atiendan. Otra cosa es que gusten o no. Aquí no hay ningún premio, hay un reconocimiento. Lo digo porque no es lo mismo. Lo que presentamos es un reconocimiento a un trabajo y por cómo se viene desempeñando.

Soldata-igoera diskrezionala egingo dela esan duzue. Soldata dagozkion parametro guztien arabera neurtzen badugu, ez dut uste Udalari oso garesti aterako zaionik. Izan ere, egiten diren aparteko orduak ohiko orduen bidez konpentsatzeagatik ere Udalak dirua ordaindu behar duelako.

Se dice que se está haciendo una subida salarial discrecional. Si medimos el salario en función de todos los parámetros que contiene no sé si es muy gravoso para el Ayuntamiento porque la compensación de las horas extraordinarias que se meten por horas ordinarias también le cuestan dinero al Ayuntamiento.

Profesionaltasuna eta jardute ona aitortu nahi da. Jakina, badaude oso ondo lan egiten duten langileek, baina ez dute erabilgarritasun bera. Berezitasuna ez datza profesionaltasunean eta jardute onean, baizik eta erabilgarritasunean.

Se reconoce una profesionalidad y un buen hacer que, por supuesto, hay otros trabajadores que lo hacen, pero que no tienen esta disponibilidad. La peculiaridad no está en la profesionalidad y el buen hacer, sino en la disponibilidad.

Lana saritzeko deialdiaren kontu hori beste erakunde batzuen eskuetan dago. Izan ere, ikusten da, bai, nola dabiltzan.

Lo de la convocatoria de premios al mérito en el trabajo lo dejo para otras instituciones, que así les va.

Fideltasunari dagokionez, urrunegi joan zara. Hitza bera ere itsusia da. Iraingarria iruditzen zait langilearentzat, bere lanaren oinarria ez delako fideltasuna baizik eta profesionaltasuna. Horregatik, hitza jatea eskatzen dizut. Arestian,

En lo que se refiere a la fidelidad, te has pasado mil pueblos. Hasta la palabra es fea. Me parece degradante para el operario, que no trabaja por fidelidad sino por profesionalidad. Por estos, te pido que la retires. El comentario anterior de que tu intervención parecía banal te ha parecido

zure interbentzioa hutsala dela esan dudanean, deskalifikazioa iritzi diozu iruzkin horri. Aldaketa handia egon da, bai 3. puntutik 7. punturaino. Kontu hauek kontrolatu beharko genituzke, hirugarren batzuk kaltetzen ari gara-eta.

**TXARO SARASUA DIAZ.-** Ez dut hitza jango; ez dut ezer txarrik esan. Fideltasuna aipatzen dudanean, zentzu positiboan da, eta horregatik, bada, ez dut nire hitza jan behar.

**Bozkatuta, onartu da aho batez eta botazioaren emaitza hauxe izan da:**

**Alde: EAJ/PNV (7) eta PP (2).**

**Kontran: PSE-EE (3) Peli Ortiz de Zarate Constenla, Gaizka Amorrortu Bobeda, Oihana Gomara Pikaza eta Josu Zabala Atxa, Atxiki Gabeko Kideak.**

**26.- LAUDIO UDALEKO PLANATILLA ETA LANPOSTUEN ZERRENDA ALDATZEA.- LANGILE PLAZA BAT ZMORTIZATZEA ETA PEOI ESPEZIALISTA PLAZA BAT SORTZEA.- 5067 KODEA DUEN POSTUA (LOREZAINTZAKO PEOIA) PEOI ESPEZIALISTA POSTU BILAKATZEA.- FUNTZIO PUBLIKOA ETA LAN HARREMAN ARLOKO ZINEGOTZI ORDEZKARI LAGUNTZAILE BIDEZ, AURRETIKO OGASUN ETA ONDARE ARLOKO ETA FUNTZIO PUBLIKOA ETA LAN HARREMAN ARLOKO INFORMAZIO ETA JARRAIPEN BATZORDEAREN IRIZPENAZ, ALKATETZAK ERABAKI HAU PROPOSATU DIO OSOKOARI:- ONARTUA**

Lanak, Zerbitzuak eta Mantenimenduko arloburuak proposatu du 5057 kodea duen Lorezaintzako Peoi postua (E taldea) aldatu eta Peoi Espezialista postu (C2 taldea) bilaka dadila.

Proposamenaren arrazoia da Lorezaintzako Peoi postua hutsik dagoela, titularra 2008an hil

una descalificación. Del punto 3 al 7 vaya salto que hemos dado. Moderemos este tipo de cuestiones porque estamos afectando a terceras personas.

**TXARO SARASUA DÍAZ**.- No voy a retirar nada porque no he dicho nada malo. Cuando digo fidelidad lo digo en tono positivo, por lo que no tengo nada que retirar.

**Sometida a votación, es aprobada por mayoría, con el siguiente resultado:**

**A favor: EAJ/PNV (7) y PP (2).**

**En contra: PSE-EE (3) y Peli Ortiz de Zarate Constenla, Gaizka Amorrortu Boveda, Oihana Gomara Pikaza y Josu Zabala Atxa, Miembros No Adscritos.**

**26.- MODIFICACIÓN DE LA PLANTILLA Y DE LA RELACIÓN DE PUESTOS DEL AYUNTAMIENTO DE LAUDIO/LLODIO.- AMORTIZACIÓN DE UNA PLAZA DE OPERARIO Y CREACIÓN DE UNA PLAZA DE PEÓN.- TRANSFORMACIÓN DEL PUESTO CÓDIGO 5067 PEÓN DE JARDINERÍA EN UN PUESTO DE PEÓN ESPECIALISTA.- PROPUESTA DE ALCALDÍA A TRAVÉS DE CONCEJAL DELEGADO ADJUNTO DEL ÁREA DE FUNCIÓN PÚBLICA Y RELACIONES LABORALES PREVIO DICTAMEN DE COMISIÓN INFORMATIVA Y DE SEGUIMIENTO DE LAS ÁREAS DE HACIENDA Y PATRIMONIO Y DE FUNCIÓN PÚBLICA Y RELACIONES LABORALES.- APROBADA.**

El Jefe del Área de Obras, Servicios y Mantenimiento ha propuesto que el puesto código 5057 Peón de Jardinería, Grupo E, se modifique y se transforme en un puesto de Peón Especialista, Grupo C2.

Esta propuesta está motivada porque el puesto de Peón de Jardinería está vacante desde el fallecimiento de su titular en el año 2008. Esta

zenetik. Egoera hori ez da oso traumatikoa izan lorezaintzako lan-taldearentzat, euren lanean izan den berregituraketa dela medio. Aitzitik, Udaleko obretako lan-taldeak bere aukerak gainditzen dituen jarduera-programa bati aurre egin behar dio, eta sarritan behin-behineko langileek bete behar dituzte hainbat postu. Horiek horrela, bada, beste Peoi Espezialista plaza bat sortu beharra dago.

Dena den, lanpostuari dagokion guztizko ordainsaria ez litzateke aldatuko, Lanpostuen Zerrendan kontzeptu guztiengatik (Soldata + Lanpostu-mailako osagarria + Berariazko osagarria) ezarrita duen ordainsaria beste peoi espezialista batzuenaren parekoa delako. Hortaz, ordainsarien kontzeptu batzuetan dagozkion doiketak egin beharko lirateke, baina egungo guztizko ordainsari garbiari eutsiz.

5067 kodea duen Lorezaintzako Peoi postua hutsik dago, titularraren heriotzagatik. Lagun horrek 9042 kodea duen Langile plaza betetzen zuen (taldea: Lanbide Taldea (E); eskala: Administrazio Berezia; azpieskala: Zerbitzu Bereziak; Mota: Ofizioetako Langileak). Hortaz, plaza hori Peoi Espezialista plaza bilakatuko da, 9057 kodea duela (taldea: C2; eskala: Administrazio Berezia; azpieskala: Zerbitzu Bereziak; Mota: Ofizioetako Langileak).

Apirilaren 2ko 7/85 Legeko 90. artikuluan, apirilaren 18ko 781/86 Legegintzako Errege Dekretuko 126. eta 127. artikuluetan eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/89 Legean dagozkion artikuluetan xedatutakoarekin bat, Lanpostu Zerrenden bidez gauzatuko dira lanpostuak aldatu eta ezabatzeko erabakiak. Era berean, apirilaren 12ko 7/2007 Legeko (Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuarena) 74. artikuluan xedatutakoari jarraitu beharko zaio.

Herri-administrazioen zerbitzura dauden langileen ordezkaritza-organoei, lan-baldintzen zehaztapenari eta parte-hartzeari buruzko ekainaren 12ko 9/1987 Legeko 32. artikuluan xedatutakoari jarraituz, Langileen Batzordearekin eztabaidatu da Lanpostuen Zerrenda aldatzeko proposamena, espedienteari atxikitako aktan

situación no ha resultado muy traumática para la brigada de jardinería por la reorganización que se ha efectuado de sus trabajos. Sin embargo, la plantilla de la brigada municipal de obras se encuentra con un programa de actuaciones que supera sus posibilidades y habitualmente se encuentran varios puestos cubiertos por trabajadores interinos, por lo que se precisa contar con un puesto más de Peón Especialista.

Las retribuciones totales del puesto no se verían modificadas, dado que tiene asignadas en la Relación de Puestos de Trabajo una retribución total equivalente por todos los conceptos (Sueldo + Complemento de Destino + Complemento Específico) a la de los otros puestos de Peón especialista, debiendo, únicamente, procederse a los correspondientes ajustes en algunos de los conceptos retributivos, pero manteniéndose la retribución bruta total actual.

El puesto código 5067 Peón de Jardinería está vacante por fallecimiento de su titular, que ocupaba la plaza código 9042 Operario, Grupo: Agrupaciones Profesionales (E) de la Escala de Administración Especial, Subescala Servicios Especiales, Clase Personal de Oficios, siendo necesario transformar dicha plaza en una de Peón Especialista con código 9057, Grupo C2, de la Escala de Administración Especial, Subescala Servcios Especiales, Clase Personal de Oficios.

De acuerdo a lo regulado por los Arts. 90 de la Ley 7/85, de 2 de Abril, 126 y 127 del Real Decreto Legislativo 781/86, de 18 de Abril y los correspondientes de la Ley 6/89, de 6 de Julio de la Función Pública Vasca, la creación, modificación o supresión de puestos de trabajo se realizará a través de las Relaciones de Puestos de Trabajo. En el mismo sentido se manifiesta el artículo 74 de la Ley 7/2007, de 12 de abril, del Estatuto Básico del Empleado Público.

De conformidad con el art. 32 de la Ley 9/1987, de 12 de junio, sobre Órganos de representación, determinación de las condiciones de trabajo y participación del personal al servicio de las Administraciones Públicas, se ha negociado con la Junta de Personal la propuesta de modificación de la Relación de Puestos de Trabajo, según actas que figuran en el expediente.

jasotakoarekin bat.

Proposatutako aldaketek ez dute inolako kosturik eragiten egungo aurrekontu-ekitaldian. Peoi Espezialista plazaren sorrera eta Lorezaintzako Peoi postua Peoi Espezialista postu bilakatzea Langile plazari (amortizatuko baita) dagokion aurrekontu-gordailuaren kargura eta Lorezaintzako Peoi postuan egun ezarrita dituen guztizko ordainsariaren kargura egingo da.

Las modificaciones propuestas no suponen coste alguno para el presente ejercicio presupuestario. La creación de la plaza de Peón Especialista y la transformación del puesto de Peón de Jardinería en un Puesto de Peón Especialista es con cargo a la consignación presupuestaria de la plaza de Operario que se amortiza y al total de las retribuciones que tiene actualmente asignadas el puesto de Peón de Jardinería.

Hala Plantillako nola Lanpostuen Zerrendako aldaketak ALHAOn argitaratu behar dira.

Tanto la modificaciones de la Plantilla como de la Relación de Puestos han de publicarse en el BOTHA.

Udal Kontu Hartzailetzak idatzitako txostena ikusi da. Haren arabera, printzipioz, ezarritako lotura-mailari dagozkion I. kapituluko partidetan nahikoa aurrekontu-gordailu dago, baina kontuan hartu behar da egungo informatika- eta kontabilitate-sistemak ez duela benetako kontrola egiteko aukerarik ematen. Kreditua ez egotea, beraz, baldintza etengarritzat joko da.

Visto el informe de la Intervención municipal en el que se indica que la existencia de consignación presupuestaria suficiente, en las partidas de capítulo I que corresponden al nivel de vinculación establecido, lo será con las reservas debidas a que actualmente, el sistema informático y de contabilidad no permite el control real. Deberá someterse a condición suspensiva de existencia de crédito.

Hizkuntza Politikako txostena, 2011ko apirilaren 8koa (sarrera-erregistroko zk: 4172, data: 2011ko apirilaren 11) ikusita.

Visto el informe de Política Lingüística de fecha 08.04.2011 con registro de entrada núm. 4172 de 11 de abril de 2011.

7/85 Legeko 22.2 i) artikuluan xedatutakoaren arabera, Udalbatzaren Osoko Bilkurak eskumena du Plantilla eta Lanpostuen Zerrenda eta bertan egiten diren aldaketak onartzeko.

Conforme a lo establecido en el Art. 22.2 i) de la Ley 7/85 es competente para aprobar la Plantilla y la Relación de Puestos de Trabajo y sus modificaciones el Pleno de la Corporación.

2007ko azaroaren 26ko 3110 Alkatetzako Dekretuarekin bat, Alkatetzak arloko zinegotzi ordezkari laguntzaileen esku utzi zuenez sinadura, Funtzio Publikoa eta Lan Harreman Arloko zinegotzi ordezkari laguntzaile bidez, Ogasun eta Ondare eta Ondare eta Funtzio Publiko eta lan Harreman Arloetako Informazio eta Jarraipen Batzordearen aldez aurreko irizpenaz, Alkatetzak erabaki hauxe hartzea proposatu dio Osoko Bilkurari:

De acuerdo con el Decreto de Alcaldía núm. 3110, de 26 de noviembre de 2007, por el que la Alcaldía efectúa delegación de firma a favor del Concejal Delegado Adjunto de Área, la Alcaldía a través del Concejal Delegado Adjunto del Área de Función Pública y Relaciones Laborales, previo dictamen de la Comisión Informativa y de Seguimiento de las Áreas de Función Pública y Relaciones Laborales y de Hacienda y Patrimonio, propone al Pleno la adopción del siguiente acuerdo:

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren apirilaren 12ko 7/2007 Legeko 74. artikuluan, apirilaren 2ko 7/85 Legeko 90.

De conformidad con lo establecido en el artículo 74 de la Ley 7/2007, de 12 de abril, del Estatuto Básico del Empleado Público y en los Arts. 90 de la Ley 7/85, de 2 de Abril, 126 y 127

artikuluan eta apirilaren 18ko 781/86 Legegintzako Errege Dekretuko 126. eta 127. artikuluetan eta Euskal Funtzio Publikoan arautu eta ezarritakoarekin bat, Laudio Udaleko Plantillan eta Lanpostuen Zerrendan ondorengo aldaketa egin dadin onartzea, betiere, nahikoa kreditu badago:

LEHENA.- Karrerako Funtzionarioen Langileen Plantillan aldaketa hauek egin daitezen onartzea:

1.1- 9042 kodea duen Langile plaza amortizatzea (taldea: Lanbide Taldea E; eskala: Administrazio Berezia; azpieskala: Zerbitzu Bereziak; mota: Ofizioetako Langileak).

1.2- 9057 kodea duen Peoi Espezialista plaza bat amortizatzea (taldea: Lanbide Taldea E; eskala: Administrazio Berezia; azpieskala: Zerbitzu Bereziak; mota: Ofizioetako Langileak).

BIGARRENA.- Lanpostuen Zerrendan aldaketa hau egin dadin onartzea:

5067 kodea duen lanpostua (Lorategietako Peoia) Peoi Espezialista lanpostu bilakatzea (5067 kodea; 5. arloa, Lanak, Zerbitzuak eta Mantenimendua). Postu hori funtzionarioek beteko dute, lehiaketa normalizatu bidez, eta ezaugarri hauek izango ditu: C2 taldea; eskala: Administrazio Berezia; taldearen araberako titulazioa; B motako gidabaimena; 1. hizkuntza-eskakizuna, derrigortasun-datarik gabe; lanpostu-mailako osagarriaren maila: 12.a eta berariazko osagarria: 14.799,91 euro. Halaber, honako zeregin hauek izango ditu:

- Lanbide-ezagutzarik eskatzen ez duten eskuzko operazioak egitea eta ofizioetako langileei (igeltseroak, lorezainak, argiketariak, ofizialak eta abar) laguntzea honako zeregin hauetan:
  - o Laguntzaile-lanak:
    - ▪ Zuhaitzak landatzeko zuloak egitea, soropila moztea, ureztatzea eta abar.
    - ▪ Saneamendu-hodiak libratzea.
    - ▪ Urak banatzeko sareko matxuretan, zangak ireki eta ixtea.
    - ▪ Espaloietan baldosak jartzea.

del Real Decreto Legislativo 781/86, de 18 de Abril, y Ley de la Función Pública Vasca, se aprueba, con la condición suspensiva de existencia de crédito, la siguiente modificación de la Plantilla y de la Relación de Puestos de Trabajo de este Ayuntamiento de Laudio/Llodio:

PRIMERO.- Aprobar las siguientes modificaciones de la Plantilla del Personal Funcionario de Carrera:

1.1- Amortizar la plaza código 9042, Operario, Grupo Agrupaciones Profesionales (E), de la Escala de Administración Especial, Subescala Servicios Especiales, Clase Personal de Oficios.

1.2- Crear una plaza de Peón Especialista, código 9057, Grupo Agrupaciones Profesionales (E), de la Escala de Administración Especial, Subescala Servicios Especiales, Clase Personal de Oficios.

SEGUNDO.- Aprobar la siguiente modificación de la Relación de Puestos:

Transformar el puesto código 5067 Peón de Jardinería, en el puesto código 5067 Peón Especialista, del Área 05, Obras, Servicios y Mantenimiento, a proveer por personal funcionario, mediante Concurso, normalizado, Grupo C2, Escala de Administración Especial, Titulación según grupo y carnet de conducir B, Perfil Lingüístico 1 sin fecha de preceptividad, Nivel de complemento de Destino 12, Complemento Específico 14.799,91 € y con las siguientes funciones de Peón Especialista:

- Efectuar operaciones manuales que no supongan conocimientos de oficio y servir de ayudante a personal de oficios tales como albañiles, jardineros, electricistas, etc, oficiales, en tareas como
  - o Trabajos de ayudantía:
    - ▪ Cavar hoyos para plantar árboles, cortar césped, regar, etc.
    - ▪ Efectuar desatascos en saneamiento.
    - ▪ Abrir y cerrar zanjas en averías de la red de distribución de aguas.
    - ▪ Colocación de baldosas en aceras.
    - ▪ Ejecución material de tareas de

- Agintzen zaizkion igeltserotza-, pintura-, lorezaintza- edo elektrizitate-lanak aurrera eramatea.
- Antzeko beste zeregin batzuk.
  - Bide-seinaledun diskoak jartzea bide publikoan.
  - Agintzen zaizkion igeltserotza-, pintura-, lorezaintza- edo elektrizitate-lanak aurrera eramatea.
  - Materialak prestatu eta eramatea.
  - Pikatzea, hondeatzea, eraistea eta zangak egitea.
  - Makineria, altzariak lanabesak eta abar alde batetik bestera eramatea.
  - Aldamioak jarri eta jasotzea.
  - Hondakinak jasotzea.
  - Lanabesak eta makineria garbitzea.
  - Oro har, ikuskizun eta ekitaldi publikoetan erabiltzen diren azpiegiturak muntatzea eta desmuntatzea.
- Laneko partea betetzea.
- Dagokionean, kamionetak, furgonetak dumperrak eta abar gidatzea eta obretako makinak, konpresoreak, mailu pneumatikoa, sorgailuak eta abar erabiltzea.
- Langileburuaren edo lanbide-ofizialen argibideei jarraitzea, obra-gremioari dagozkion lanak edo bestelako zerbitzuak egiteko.
-
- Lanabesak, makineria eta tresnak egoera onean daudela zaintzea.
- Antzeko beste zeregin batzuk.
- Nagusiek bere zereginei lotuta agintzen dioten beste edozein lan.

Lanpostu honi urteko ordainsari hauexek dagozkio: 8.378,58 euro, Udaleko Aurrekontuko 0600-5110-120.00 partidaren kargura; 4.167,85 euro 0500-5110-121.01 partidaren kargura eta 14.799,91 euro 0500-5110-121.02 partidaren kargura.

HIRUGARRENA.- Plantillan eta Lanpostuen Zerrendan egindako aldaketa hauek ALHAOn argitaratzea.

**TXARO SARASUA DIAZ.-** Legegintzaldi osoan zehar defendatu dugu beharrezko ez diren plazak amortizatu behar direla, eta horien ordez,

albañilería, pintura, jardinería o electricidad que le sean encomendadas.

- Otras tareas similares.
  - Colocar discos de señales de circulación en la vía pública.
  - Ejecución material de tareas de albañilería, pintura, jardinería o electricidad que le sean encomendadas.
  - Preparar y acarrear materiales.
  - Picar, excavar, derribar y efectuar zanjas.
  - Trasladar maquinaria, muebles, utensilios, etc.
  - Levantar y recoger andamios.
  - Recoger escombros.
  - Limpiar utensilios y maquinaria.
  - En general, montaje y desmontaje de efectos correspondientes a espectáculos y actos públicos.
- Rellenar el parte de trabajo.
- Conducción eventual de camionetas, furgonetas, dumper, etc. y manejo de maquinaria de obras, compresores, martillo neumático, generadores, etc.
- Instrucciones del encargado o de los oficiales de oficio, ya sea para trabajos de los gremios de obras y mantenimiento como para otros servicios.
- Cuidar del buen estado de útiles, maquinaria y herramientas.
- Realizar tareas similares.
- Realización de todas las tareas que, dentro de sus funciones, le indiquen sus superiores.

Las retribuciones anuales correspondientes a este puesto de trabajo ascienden a la cantidad de 8.378,58,-€ con cargo a la partida 0500-5110-120.00, 4.167,85 € con cargo a la partida 0500-5110-121.01 y 14.799,91 € con cargo a la partida 0500-5110-121.02. del presupuesto del Ayuntamiento.

TERCERO.- Publicar en el BOTHA estas modificaciones de la Plantilla y de la Relación de Puestos de Trabajos.

**TXARO SARASUA DÍAZ.-** Venimos defendiendo toda la legislatura que se amorticen aquellas plazas que no sean necesarias y que se creen, en su lugar paralelamente las que si lo sean, en la misma o en diferente área Esto es un

paraleloki, beharrezko direnak sortzea, arlo berean edo beste batean. Hau da, beraz, defendatu izan dugunaren adibidea.

Halaber, gure aburuz, administrari laguntzaileekin jokatu den modu berean jokatu beharko litzateke peoiekin.

**Bozkatuta, onartu da aho batez eta botazioaren emaitza hauxe izan da:**

**Alde: EAJ/PNV (7), PSE-EE (3) eta PP (2).**

**Kontran: Peli Ortiz de Zarate Constenla, Gaizka Amorrortu Bobeda, Oihana Gomara Pikaza eta Josu Zabala Atxa, Atxiki Gabeko Kideak.**

**27.- LAUDIOKO UDALEKO LANPOSTU ZERRENDA ALDATZEA.- LANPOSTU BATZUEN KODEAK, IZENAK ETA ESKALAK ALDATZEA.- FUNTZIO PUBLIKOA ETA LAN HARREMAN ARLOKO ZINEGOTZI ORDEZKARI LAGUNTZAILE BIDEZ, AURRETIKO OGASUN ETA ONDARE ARLOKO ETA FUNTZIO PUBLIKOA ETA LAN HARREMAN ARLOKO INFORMAZIO ETA JARRAIPEN BATZORDEAREN IRIZPENAZ, ALKATETZAK ERABAKI HAU PROPOSATU DIO OSOKOARI:- ONARTUA.**

Funtzio Publikoko Arloak Lanpostuen Zerrendan aldaketa batzuk egin daitezela proposatu du. Aldaketa horien xede bakarra da postuak ordenatzea Lanpostuen Zerrendaren barruan, eta hutsik daudenean horiek estal daitezen ahalbidetzea, lekualdatze-lehiaketak deituz, hain zuzen.

Dagozkion arloekin bat ez datozen postuetako kodeak aldatzea proposatu da. Gehienetan, postu batzuk arlo batetik beste batera pasatu izanaren ondorioz sortu da gorabehera hori.

ejemplo de lo que venimos defendiendo.

Además pensamos que se debiera hacer con los peones lo mismo que se ha hecho con los auxiliares administrativos.

**Sometida a votación, es aprobada por mayoría, con el siguiente resultado:**

**A favor: EAJ/PNV (7), PSE-EE (3) y PP (2).**

**En contra: Peli Ortiz de Zarate Constenla, Gaizka Amorrortu Boveda, Oihana Gomara Pikaza y Josu Zabala Atxa, Miembros No Adscritos.**

**27.- MODIFICACIÓN DE LA RELACIÓN DE PUESTOS DE TRABAJO DEL AYUNTAMIENTO DE LAUDIO/LLODIO.- MODIFICACIÓN DE CÓDIGOS, DENOMINACIÓN Y ESCALAS DE ALGUNOS PUESTOS.- PROPUESTA DE ALCALDIA A PLENO A TRAVES DE CONCEJAL DELEGADO ADJUNTO DEL AREA DE FUNCION PUBLICA Y RELACIONES LABORALES PREVIO DICTAMEN DE COMISION INFORMATIVA Y DE SEGUIMIENTO DE LAS AREAS DE HACIENDA Y PATRIMONIO Y DE FUNCION PUBLICA Y RELACIONES LABORALES.- APROBADA.**

Desde el Área de Función Pública se proponen una serie de modificaciones, de la Relación de Puestos de Trabajo, cuya única finalidad son ordenar los puestos en la Relación de Puestos de Trabajo y posibilitar su cobertura, cuando estén vacantes, mediante la convocatoria de concursos de traslados.

Se propone modificar los códigos de los puestos que no se corresponden con las Áreas a las que pertenecen y son resultado, en la mayoría de los casos, de traslado de los puestos de una a otras Áreas.

La modificación de las escalas está motivada porque en cuatro puestos de Administrativos

Bestalde, eskalak aldatzeko arrazoia da Administrarien lau postutan K eskala ageri dela. Lanpostuen Zerrendari atxikitako izen-zerrendaren arabera, honakoa adierazi nahi du letra horrek: "Administrazio Orokorra.- Administraria, Administrazio Orokorra, desagertzeko". Eskalako zehaztapen horrek ez du zentzurik gaur egun, postu horiek beharrezkoak direlako eta ez dagoelako aurreikusita amortizatuko direnik hutsik geratzen direnean.

7004 kodea duen Erdi Mailako Teknikari postuaren kodea eta izena ere aldatuko dira. Hemendik aurrera Laneko Arriskuen Prebentziorako Teknikari deituko da, eta 2004 kodea izango du. Aldaketa horien bidez, zer arlori atxikita dagoen eta zer zeregin dagozkion adieraziko da.

Apirilaren 2ko 7/85 Legeko 90. artikuluan, apirilaren 18ko 781/86 Legegintzako Errege Dekretuko 126. eta 127. artikuluetan eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/89 Legean dagozkion artikuluetan xedatutakoarekin bat, Lanpostu Zerrenden bidez gauzatuko dira lanpostuak aldatu eta ezabatzeko erabakiak. Era berean, apirilaren 12ko 7/2007 Legeko (Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuarena) 74. artikuluan xedatutakoari jarraitu beharko zaio.

Herri-administrazioen zerbitzura dauden langileen ordezkaritza-organoei, lan-baldintzen zehaztapenari eta parte-hartzeari buruzko ekainaren 12ko 9/1987 Legeko 32. artikuluan xedatutakoari jarraituz, Langileen Batzordearekin eztabaidatu da Lanpostuen Zerrenda aldatzeko proposamena, espedienteari atxikitako aktan jasotakoarekin bat.

Proposatutako aldaketek ez dute kosturik eragingo.

Lanpostuen Zerrendan egindako aldaketak ALHAOn argitaratu behar dira.

Hizkuntza Politikako txostena, 2011ko apirilaren 8koa (sarrera-erregistroko zk: 4172, data: 2011ko apirilaren 11) ikusita.

7/85 Legeko 22.2 i) artikuluan xedatutakoaren arabera, Udalbatzaren Osoko Bilkurak eskumena

figura la escala K, que según la nomenclatura anexa a la Relación de puestos quiere decir: "Administración General.- Administrativo, Administración General, a extinguir". En la actualidad esta puntualización en la escala no tiene sentido, porque los puestos en los que figura son necesarios y no está prevista su amortización cuando queden vacantes.

También se modifica el código y la denominación del puesto código 7004 Técnico Medio, pasando a ser el código 2004 Técnico de Prevención de Riesgos Laborales, que refleja el Área a la que pertenece y las funciones que tiene asignadas.

De acuerdo a lo regulado por los Arts. 90 de la Ley 7/85, de 2 de Abril, 126 y 127 del Real Decreto Legislativo 781/86, de 18 de Abril y los correspondientes de la Ley 6/89, de 6 de Julio de la Función Pública Vasca, la creación, modificación o supresión de puestos de trabajo se realizará a través de las Relaciones de Puestos de Trabajo. En el mismo sentido se manifiesta el artículo 74 de la Ley 7/2007, de 12 de abril, del Estatuto Básico del Empleado Público.

De conformidad con el art. 32 de la Ley 9/1987, de 12 de junio, sobre Órganos de representación, determinación de las condiciones de trabajo y participación del personal al servicio de las Administraciones Públicas, se ha negociado con la Junta de Personal la propuesta de modificación de la Relación de Puestos de Trabajo, según actas que figuran en el expediente.

Las modificaciones propuestas no suponen coste alguno.

La modificaciones de la Relación de Puestos han de publicarse en el BOTHA.

Visto el informe de Política Lingüística de fecha 08.04.2011 con registro de entrada núm. 4172 de 11 de abril de 2011.

Conforme a lo establecido en el Art. 22.2 i) de la Ley 7/85 es competente para aprobar la Plantilla y la Relación de Puestos de Trabajo y sus modificaciones el Pleno de la Corporación.

du Plantilla eta Lanpostuen Zerrenda eta bertan egiten diren aldaketak onartzeko.

2007ko azaroaren 26ko 3110 Alkatetzako Dekretuarekin bat, Alkatetzak arloko zinegotzi ordezkari laguntzaileen esku utzi zuenez sinadura, Funtzio Publikoa eta Lan Harreman Arloko zinegotzi ordezkari laguntzaile bidez, Ogasun eta Ondare eta Ondare eta Funtzio Publiko eta lan Harreman Arloetako Informazio eta Jarraipen Batzordearen aldez aurreko irizpenaz, Alkatetzak erabaki hauxe hartzea proposatu dio Osoko Bilkurari:

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren apirilaren 12ko 7/2007 Legeko 74. artikuluan, apirilaren 2ko 7/85 Legeko 90. artikuluan eta apirilaren 18ko 781/86 Legegintzako Errege Dekretuko 126. eta 127. artikuluetan eta Euskal Funtzio Publikoan arautu eta ezarritakoarekin bat, Laudio Udaleko Plantillan eta Lanpostuen Zerrendan ondorengo aldaketa hau egin dadin onartzea:

LEHENA.- Lanpostuen Zerrendan aldaketa hau egin dadin onartzea:

1.1.- Postu hauen kodeak aldatzea.

- 4007 kodea duen Ordenantza postuak 1005 kodea izango du.
- 6004 kodea duen Mantenamenduko Arduradun Tekniko postuak 5010 kodea izango du.
- 6008 kodea duen Mantenamenduko Ofizial postuak 5042 kodea izango du.
- 6009 kodea duen Mantenamenduko Ofizial postuak 5043 kodea zango du.
- 6010 kodea duen Mantenamenduko Ofizial postuak 5044 kodea izango du.
- 5042 kodea duen Mantenamenduko Peoi Espezialista postuak 5038 kodea izango du.
- 7019 kodea duen Administrari postuak 8007 kodea izango du.

1.2.- 7004 kodea duen Erdi Mailako Teknikari postuaren izena eta kodea aldatzea. Hemendik aurrera Laneko Arriskuen Prebentziorako Teknikari deituko da, eta 2004 kodea izango du.

De acuerdo con el Decreto de Alcaldía núm. 3110, de 26 de noviembre de 2007, por el que la Alcaldía efectúa delegación de firma a favor del Concejal Delegado Adjunto de Área, la Alcaldía a través del Concejal Delegado Adjunto del Área de Función Pública y Relaciones Laborales, previo dictamen de la Comisión Informativa y de Seguimiento de las Áreas de Función Pública y Relaciones Laborales y de Hacienda y Patrimonio, propone al Pleno la adopción del siguiente Acuerdo:

De conformidad con lo establecido en el artículo 74 de la Ley 7/2007, de 12 de abril, del Estatuto Básico del Empleado Público y en los Arts. 90 de la Ley 7/85, de 2 de Abril, 126 y 127 del Real Decreto Legislativo 781/86, de 18 de Abril, y Ley de la Función Pública Vasca, se aprueba la siguiente modificación de la Relación de Puestos de Trabajo de este Ayuntamiento de Laudio/Llodio:

PRIMERO.- Aprobar la siguiente modificación de la Relación de Puestos:

1.1.- Modificar los códigos de los siguientes puestos.

- Puesto código 4007 Ordenanza pasa a tener el código 1005.
- Puesto código 6004 Encargado Técnico de Mantenimiento pasa a tener el código 5010.
- Puesto código 6008 Oficial de Mantenimiento pasa a tener el código 5042.
- Puesto código 6009 Oficial de Mantenimiento pasa a tener el código 5043.
- Puesto código 6010 Oficial de Mantenimiento pasa a tener el código 5044.
- Puesto código 5042 Peón Especialista Mantenimiento Urbano pasa a tener el código 5038.
- Puesto código 7019 Administrativo/a pasa a tener el código 8007.

1.2.- Modificar el código y la denominación del puesto código 7004 Técnico Medio que pasa a tener el código 2004 y a denominarse Técnico de Prevención de Riesgos Laborales.

1.3.- Establecer en los requisitos de

1.3.- Jarraian adierazitako postuen jardun-betekizunetan ezartzea dagokien eskala Administrazio Orokorreko Eskala dela:

- HAZko Administraria (1003 kodea).
-
- Kontu Hartzailetzako Administraria (3005 kodea)
- Diruzaintzako Administraria (3009 kodea).
- Administraria (8007 kodea).

BIGARRENA.- Plantillan eta Lanpostuen Zerrendan egindako aldaketa hauek ALHAOn argitaratzea.

**GAIZKA AMORRORTU BOVEDA**.- Guk uste dugu aldaketa handiagoa izan beharko litzatekeela.

Aldatzen diren eskalak gure ustez aldaketa horiek A eskaletara izan beharko lirateke bi eskaletara izan beharko lirateke Udaletxeko zenbait langile diskriminatuak izan ez daitezen promozionatzeko orduan.

